

Revolving kredituari buruzko kontratu aurreko informazio gehigarria (banku-zerbitzuen gardentasunari eta bezeroaren babesari buruzko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Aginduaren 33 ter artikulua)

Wizink kreditu-txartela.

Caser Cling_Cling Kreditu-txartelari aplikatu ahal zaio.

Oharra: Hasierako hizkia letra larriz idatzitako hitzak edo hitz-multzoak txartel honetako Europako Informazio Normalizatuko (INE) dokumentuko 4. ataleko glosarioan definituta agertzen dira.

Zure txartelaren kreditu-lerroa eta ordainketa-modalitatea	Zure txartelaren kreditu-lerroak izaera birakaria edo «revolving»-a du. Txartelak ordainketa-modalitate hauek ditu: • Ordainketa Osoa. • Revolving ordainketa geroratuaren kasuan, Zenbateko Finkoaren Ordainketa Geroratua. Kreditu-txartela eskatu edo/eta aktibatzeke unean berariaz adierazten ez baduzu, Ordainketa Osoa modalitatea aukeratzen duzula ulertuko da, eta txartela ordainketa-modalitate horrekin jaulkiko da. Aukeratzen duzun ordainketa-modalitatea edozein dela ere, WiZinkek Transakzio baten edo batzuen ordainketa geroratzeko aukera emango dizuten eta kasu bakoitzean Bankuarekin adostu beharko diren zerbitzu gehigarri hauek eskaintzen dizkizu: – Aplaza plana: erosketak bat edo batzuk geroratzeko adostu ahal izango duzu WiZinkekin (zenbateko jakin batetik aurrera), zenbateko hori hileko kuota finkoen bidez itzuliz. Kuota horiek, kapitalaz gain, interes edo/eta komisio aplikagarriak ere jasoko dituzte. – Eskudiruaren intsuldaketa kuota finkoetan ordainduta: zure kreditu-lerroaren zenbateko jakin bat intsuldatzea adostu ahal izango duzu WiZinkekin, zenbateko hori hileko kuota finkoen bidez itzuliz. Kuota horiek, kapitalaz gain, interes edo/eta komisio aplikagarriak ere jasoko dituzte.
--	--

Zure txartelaren kreditu-lerroa eta ordainketa-modalitatea	Kreditu birakariaren ezaugarri nagusia da kreditu-lerroaren muga bat ezartzen dela eta eskuragarri dagoen zenbatekoa muga horrekin bat datorrela hasieran. Muga hori gutxitu egiten da karguak egiten diren heinean (erosketak, kutxazaineen dirua ateratzea, diru-transferentzien bidezko erabilerak, interesen eta gastuen likidazioak eta abar) eta ordainsarien bidez itzultzen da (aldizko ordainagiriaren ordainketa, erosketen itzulketak, etab.). Beraz, txartelaren titular gisa ordaintzen dituzun hileko kuotaren zenbatekoak txartelaren kreditu erabilgarrian sartzen dira berriro.
Zer gertatzen da iraungitako, eskatu daitezkeen eta ordaindu ez dituzun zenbatekoekin?	Bankuak ez du kapitalizatzen interes, komisio eta gastuen kopururik, ez eta ordainketa-aseguruen primarik ere, mugaeguneratuak, galdagarriak eta ordaindu gabeak badira.
Ezarritako ordainketa-modalitatearen aldaketa, bai eta hura gauzatzeko baldintzak ere.	Ordainketa modalitateak Ordainketa Osoa dira eta, revolving ordainketa geroratuaren kasuan, Zenbateko Finkoaren Ordainketa Geroratua. Txartelaren titularra zaren aldetik, une bakoitzean zure beharretara hobekien egokitzen den kreditu-lerroaren erabilera ordaintzeko modalitatea aukeratu behar duzu. Gainera, Fakturazio-Aldi bakoitzerako aukeratutako ordainketa-modalitatea aldatu ahal izango duzu, ohiko komunikazio-bideen bidez WiZinki jakinarazita, hileko kuota Ordaintzeko Eguna baino gutxienez lau (4) egun baliodun lehenago. Aldaketarik egiten ez bada, ordaintzeko modua aurreko Ordainketa Datan erabilitakoa izango da. Kreditu-txartela eskatu edo aktibatzeko unean ordainketa-modalitate bat berariaz adierazi ez baduzu, Ordainketa Osoa modalitatea aukeratzeko modua ulertuko da. WiZinkek ezin du bere kabuz aldatu ezarritako ordainketa-modalitatea. Zuk ordaintzen ez baduzu, WiZinkek ordainagiriak Helbideratze Kontu Korrontera igortzeko eskubidea izango du, gutxieneko ordainketari dagokion zenbatekoarekin, baldin eta ezarritako ordainketa-modalitatearen arabera aukeratutako zenbatekoa ez baduzu hurrengo fakturazio-aldia amaitu aurretik ordaintzen. Kasu horretan, Bankuak ordainagiriak igortzen jarrai dezake Gutxieneko Ordainketari dagokion zenbatekoarekin, ordaindu beharreko zenbateko guztiak ordaintzen ez dituzun bitartean. Orduan, ordainagiriak berriro igorriko dizkizugu aurretik adostutako moduan. Gutxieneko Ordainketa hilero zifra hauetatik handienaren arabera kalkulatu da: i) 40 € edo; ii) Likidazio Datan kontzeptu hauek batuta ateratzen den kopurua: • Aurreko Fakturazio-aldien Gutxieneko Ordainketa, ordaindu gabe badaude. • Ordainketa Geroratuko Zerbitzuen kuota. • Fakturazio-aldian sortutako interesak, komisioak eta gastuak eta ordainketa-aseguruen primak. • Biribiltzea. • Erabilitako Printzipalaren % 2,5a.

Ezarritako ordainketa-modalitatearen aldaketa, bai eta hura gauzatzeko baldintzak ere.	Aurreko kalkulua aplikatzearen ondorioz Gutxieneko Ordainketa 40 € bada, aurreko kontzeptuez gain, ordaintzeko dauden eta aurreko Fakturazio-aldiei dagozkien interesen, komisioen eta gastuen, ordainketa-aseguruen primen eta Erabilitako Printzipalaren zenbatekoak sartuko dira. Kreditu-erroaren muga gainditzen bada, aurreko kontzeptuetan egoera horretan egon litezkeen kontzeptu guztien zenbatekoak agertuko dira. Gainera, Kreditu-lerroaren mugaren gainetik dagoen Erabilitako Printzipalaren zatia Gutxieneko Ordainketan sartu ahal izango da, bai eta aurreko Fakturazio-aldiei dagozkien eta ordaindu gabe dauden interes, komisio eta gastuen eta ordainketa-aseguruen primen zenbatekoak ere.
Espainiako Bankuaren 3/2022 Zirkularraren adibide adierazgarriak ordainketa modu bakoitzerako.	Espainiako Bankuaren 3/2022 Zirkularraren adibide adierazgarriak. Ordainketa geroratuko txartelen funtzionamendua hobeto ulertzeko, ordainketa modu bakoitzeko adibide bat jarriko dizugu: 1 – Revolving Ordainketa Geroratuko kasuan, Zenbateko Finkoko Ordainketa Geroratua modalitatean eta honako zirkunstantziak kontuan hartuz: • Emandako kreditu-muga 1.500 €-koa izatea. • Denboraren zenbaketa 365/366 eguneko urtea oinarri hartuta. • Emandako kreditu-muga osorik erabili daiteke Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik. • Ordainketa modua: Zenbateko finkoko Ordainketa Geroratu malgua, kontuan hartuta bezeroak Gutxieneko Ordainketarekin bat datorren kopuru finko bat aukeratu duela, aurreko atalean definitu denaren arabera. • Urteko Interes-tasa Nominala (ITN): % 21,58 eta Urteko tasa baliokidea (UTB): % 23,85. WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisiorik altuenak erabili dira, kontratuan aurreikusitako xedapen-modu arruntenean (erosketetarako xedapena). UTBa handiagoa izan liteke funtsak eskuratzeko gainerako aukeretarako. • Kredituaren indarraldia adostutako aldian, eta alderdien obligazioak betetzea, Kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan. • Interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea. Kasu horretan, Titularrak honako hau ordainduko luke: Hileko 50 kuota, eta horietatik 19 lehenak txikituz doan zenbatekoagatik izango lirateke, 64,48 €-tik hasi eta 40,87 €-ra arte. Kuota horretatik aurrera 40 € kuota konstante, azkena ezik, 10,39 €-koa izango dena. Beraz, urte amaieran ordaindu beharreko zenbateko osoa 2.195,19 € izango da (horien interesak 695,19 € izango dira).

2 - Ordainketa geroratuko zerbitzuen kasuan:

a. Aplaza Plana zerbitzurako zirkunstantzia hauek ematen badira:

- Zerbitzu honetan oso-osorik eskuragarri dagoen **1.500 €**-ko kreditu-muga txartelean.
- Denboraren zenbaketa 360 eguneko urtea oinarri hartuta.
- Emandako kreditu-muga osorik erabili daiteke Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik.
- **Urteko Interes-tasa Nominala (ITN): % 21,58 eta Urteko tasa baliokidea (UTB): % 23,85.**
Geroratutako ordainketa-zerbitzu honetarako WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisio altuenak erabili dira.
- Epea: **12 hilabete**, hileroko amortizazioekin.
- Kredituaren indarraldia adostutako aldian, eta alderdien obligazioak betetzea, Kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan.
- Interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea.

Kasu horretan, Titularrak honako hau ordainduko luke:

140,09 €-ko hileko **11** kuota, eta **140,07 €**-ko azkenengo kuota bat. Guztira, **1.681,06 €** ordainduko lituzke (horietatik **181,06 €** interesak izango dira).

b. Intsuldatzeko Zerbitzurako eskudirua kuota finkoetan ordainduta: Zirkunstantzia hauek ematen badira:

- Zerbitzu honetan oso-osorik eskuragarri dagoen **1.500 €**-ko kreditu-muga txartelean.
- Denboraren zenbaketa 360 eguneko urtea oinarri hartuta.
- Emandako kreditu-muga osorik erabili daiteke Kreditu-txartelaren kontratua indarrean dagoen lehen egunetik.
- Kapitala eta interesak barne hartzen dituzten kuota finko bidezko ordainketa.
- **Urteko Interes-tasa Nominala (ITN): % 21,58 eta Urteko tasa baliokidea (UTB): % 23,85.**
Geroratutako ordainketa-zerbitzu honetarako WiZinkek aplikatutako zor-tasa eta komisio altuenak erabili dira.
- Epea: **60** hilabete, hileroko amortizazioekin.
- Kredituaren indarraldia adostutako aldian, eta alderdiei dagozkien obligazioak betetzea, Kontratu honetan adostutako baldintzetan eta epeetan.
- Interes-tasa nominala eta gainerako gastuak hasierako mailan mantentzea.

Kasu horretan, Titularrak honako hau ordainduko luke:

41,07 €-ko hileko **59** kuota, eta **41,12 €**-ko azkenengo kuota bat. Guztira, **2.464,25 €** ordainduko lituzke (horietatik **964,25 €** interesak izango dira).